

**Testuliburua**

'Cutting Edge Advanced', 6-10 ikasgaiak eta erantzunak dituen ariketa-liburua

**Ikastaroaren xedea**

Hau 'advanced' mailari dagokion ikastaroa da baina azterketa teknikak prestatu beharrean, hizkuntz gaitasunak eta hizkuntz input-a garatzea da xede nagusia. Hizkuntza eroso erabili behar duzu bai entzumenetan eta irakurmenetan, bai hitz egitean eta idatzean. Estilo eta erregistro desberdinak ere lantzen jarraituko duzu.

Zure ahoskera landu beharko duzu, ingelesez egiten dutenek zu erraz ulertzeko.

Ikasgelan lantzen diren gauza berrien inguruan notak hartu eta hauek klasetik kanpo errepasatu beharko dituzu. Era berean, klasetik kanpo denbora eskaini beharko diozu ingelesari, ingelesezko testuak irakurriz (web oriak, aldizkariak, liburuak) eta ingelesa entzunez pelikuletan, telebistan edo musikaren bidez. Horrela, maila honi dagokion hizkuntzari erraz irudituko zaizu.

**Mailaren deskribapena.** Jarraian ikastaroaren amaieran zein nolako gaitasunak izan beharko dituzun zehazten da.

**Entzumena.**

- Familiarrak zaizkidan gaien inguruan ahozko hizkera standarra, zuzenean zein grabaturik, ulertzeko gai naiz. Hala ere, atzekaldeko zarata, antolaketa desegokia eta/edo hizkuntz idiomatikoa batzuetan problematikoak egiten zaizkit. □
- Oso lagunartekoa ez den bitartean, abiadura normalean ematen den eta ingelesa ama hizkuntza duten bi hizlarien arteko solasaldia erraz jarrai dezaket.

**Mintzamena.**

- Arazo bat modu argian denbora luzeaz deskribatzeko gai naiz, arrazoi, ondorio eta balizko egoeren inguruan hausnartuz.
- Solasaldi bat hasteko gai naiz, beharrezkoa denean gaia aldatuz, eztabaidan lagundu eta solasaldiari amaiera eman behar dudanean, nahiz eta beti ez modu dotorean.
- Gai desberdin askotan berez komunika naiteke eta hizkuntza jariokortasunez, doitasunez eta eraginkortasunez erabil dezaket.

**Irakurmena**

- Testu mota desberdinak independentzia maila altuarekin irakur ditzaket. Bakarrik ditut zailtasunak sarritan erabiltzen ez den hiztegiarekin. □
- Gai desberdinak jorratzen dituzten testu luze eta konplexuetan azkartasunez murgil naiteke informazio zehatza bilatzeko edo irakurketa sakonago bat merezi duen ala ez erabakitzeko.
- Idazlearen idazkera ezagutzen dudanean, liburu eta kontakizun gehienak nahiko erraz irakur ditzaket.

**Idazmena**

- Irudimenezko gertaeren eta errealitearen deskribapenak modu garbian eta egituratuan idatz ditzaket, "report", email-aren, gutunaren eta artikularen egitura egokiak erabiliz.
- Hitz edo egitura bat ez badakit, teknika batzuk erabiltzen ditut, idatzi nahi dudana beste era batean esateko (parafrese).

**Hizkuntz gaitasuna**

- Nire solaskideei eraginkortasunez nire ekarpena azaltzeko gai naiz.
- Hiztegian eta egituran ditudan hutsuneak betetzeko estrategiak ditut.

**Goikaldean zehaztutako ariketak burutu ahal izateko hizkuntzaren honako atalei aurre egin beharko diezu:**

HIZTEGIA	GRAMATIKA
Esamoldeak (umorea, gorputza, burmuina, hezkuntza) 'Phrasal verbs ' Osasuna Globalizazioa Hezkuntza Jokamoldea Hiztegi informala	Time/tense Inversions with negative adverbials Infinitive and ING forms Adverbials Adding emphasis with auxiliaries Future forms (advanced) Noun phrases Ellipsis/substitution